

# biok gara txapeldun!

a. martzel, c. p.

Bertso barri batzuek  
gura neukez jarri,  
lenengo goralduez  
Markintzebarri.  
«Leoi» ren bat dagola  
entzun dogu sarri  
indarraren indarrez  
guztiz arrigarri.  
Osabak ezarri  
nai dautso buztarri,  
or barriren barri  
jokura ekarri,  
ona zer esan dautsen  
biak alkarri:

(Markifia-Etxebarri basor-  
riko seme argi eta Pasionis-  
ta Mixiolari gartsu Aita Ju-  
lio, «Leoi» deritxon bere lo-  
ba indartsugaz apustuan.  
Biotz-biotzez, barririo Ame-  
riketara urten aurnetik. On-  
do ibilli!)

**Lebok** Neure indarrak berbaz  
azaltzera noia,  
bainia ez nazakako  
ni neurekoia.  
Berez emona daukot  
Jainkoaren doia,  
eta oraindik inok  
ez daust artu goia.  
Prest dago morroia,  
ia, zeinbat doia?  
nai bozu milloia...  
Au dok au sasoi!  
Ez aztu neu nazula  
deitzen «Leoi».

**Lobak** Gure jokuen barri  
jakiten dabena,  
ba dakiz nire izen  
eta abizenak.  
Ni lez plazarik plaza  
ibil dabizenak,  
ume, gazte ta zarrak  
dabez ezanenak.  
Ba dira dozenak  
paperik onenak,  
nire indar kemenak  
esan dituenak.  
Indar aundiak dira  
«Leoi» renak!

**Osabok** Nik autortuten dautzut  
indartsu zarala,  
bainia osabia be  
eta makala.  
Alperrik zabiz orain  
esan asmau-ala,  
zeinbat garan munduak  
ikus daitala:  
Gerriko ugala  
daukozu zabala,  
eta gorputz zala,  
Euskaldun azala:  
bainia, jakizu dana

**Osabak** Aizeak dakarrena  
berezko aruan,  
ikusi urrenguan  
zelan daruan.  
Nire izena dago  
leku seguruan,  
Jainkoak idatzila  
bere liburuan.  
Gizonen buruan  
ezta luzaruan,  
bainia bai zeruan  
orain ta geruan.  
Onetan beintzat asko

**Lobak** Egin daigun geiago  
zeiñek irabazi,  
orretan ei dago ba  
munduko grazi.  
Nik beste eskolarik  
eneban ikasi,  
baiña ba dot semeak  
zelan ondo azi.  
Besteak jo ta ausi  
beti neu naz nausi,  
dirua ikusi  
parra-parra jausi...  
Neu naz Euskal-Erriko  
diru-orrazi!

**Osabak** Zure burrukak dira  
Gizon kaxkarrakin,  
baiña nire jokua  
ez dira bardin.  
Deabru ta munduak  
dabe alkar egin,  
Eleiz Ama betiko  
laster galdu dedin.  
Barriz noia urrin,  
noz arte ez jakin;  
Aupa, jo ta ekin,  
naiz artu arren min!  
Orren sendo ba zara,  
rdu geurekin!

**Osabak** Munduak gizonari  
zer emon legio,  
norbera galdu ezkerok?  
Jesus'ek dio.  
Arima bakar batek  
dausku orraitio,  
mundu osoak baiña  
geiago balio.  
Millaka indio  
salbanta, oindio  
ba-noia, adio!  
Au da zorabio!  
Orain be txapeldun da  
Aita Julio!!!

**Lobak** Erabilliko neuke  
mundua tatarrez,  
baiña geiago zara,  
allan bearrez.  
«Leoiak» ez dautso zor  
ñori be indarrez,  
baiña irabazi daust  
Jaunaren eskarrez.  
Osaba-ta alkarrez  
or doiaz sugarrez,  
itxaso zantarrez...  
arimak bekarrez!  
«Leoi», neu naz txapeldun  
diño didarrez.

**Lobak** Indar ori ba dago  
Jaunari eskarrak!  
Berba egin daiela  
plaza-baztarrak.  
An neurtu ditut sarri  
gizonen indarrak,  
eta makurtu be bai  
askoren gangarrak.  
Lengo irribarrak  
gaur dira negarrak.  
Izen ta abarrak  
an galdu bearrak...  
Beti irabazten dau  
«Txikiñetarrak».

**Osabak** Biok gara txapeldun  
eukizu jakiña,  
baiña gure doia  
ezta bardiña.  
Zu emen indarka, ta  
ni arima-zaiña,  
txapeldun jarraitzeko  
egin alegiña.  
Pozik noia baiña,  
au juan eziña,  
biotzeko miña,  
odol-irakiña...  
Agur, amatzu eta  
Agur «Txikiña!!!»